



## **4. ORDENANTZA FISKALA, EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. ARTIKULUA**

Erandioko Udalak Ekonomia Jardueren gaineko Zerga eskatuko du Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta Zergari buruzko ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik. Ordenantzaren eranskinetan jasotzen dira aplikagarri diren koefizienteak eta indizeak.

#### **2. ARTIKULUA**

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

### **II. IZAERA ETA ZERGAGAIA**

#### **3. ARTIKULUA**

1. Ekonomia Jardueren gaineko Zerga ondasun izaerazko tributu zuzena da.
2. Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren zergagaia honako honek eratzen du: Erandioko udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea, jarduera horiek lokal jakin batetan egin zein ez, eta Zergaren tarifetan zehaztuta azaldu zein ez.
3. Zerga honen ondoretarako ondoko hauek hartuko dira enpresa jardueratzat: nekazaritza eta abeltzaintzakoak, beti ere lokabeak badira, eta meatzaritza, merkataritza nahiz zerbitzugintzako jarduerak Ez dira, beraz, enpresa jardueratzat hartuko nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak dependienteak badira ez eta basogintzakoak eta arrantzari lotutakoak ere.

Aurreko idatz-zatian ezarri denaren ondoretarako, abeltzaintza lokabetzat hartuko da ondorengo kasuetako batean dauden abelburu multzoen ustiapena:

- a) Aziendaren jabeak ez nekazaritzako ez basogintzarako erabiltzen dituen lurretan gehienbat bazkatzen direnak.
- b) Landalurreko finketatik kanpoko kortan daudenak.
- c) Azienda transhumantea edo transterminantea.
- d) Haztegian bertan ekoiztu ez diren pentsuez elikatzen den azienda

#### **4. ARTIKULUA**

1. Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jardueratzat joko da hura egiten duenak bere kabuz antolatu behar ditueneko ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.
2. Zergapeko jardueren edukia zergaren tarifen atalean zehaztuko da.
3. Zuzenbidean onar daitekeen edozein modu erabiliko da zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko eta, bereziki, Merkataritzako Kodearen 3. artikuluan ezarri diren bideak.



### III. KARGAPEKOTASUN EZA

#### 5. ARTIKULUA

Ondoren azalduko diren jarduera hauek burutzea ez da Zerga honen zergagai izango:

1. Enpresen aktibo finkoan sartuta dauden ondasunen besterentzea, beti ere ondasun horiek ibilgetu moduan era egokian inbentariatuta egon direnean eskualdaketaren aurretik, urte bi baino lehenagotik; halaber, ez da zergaekoa izango saltzaileak erabiltzeko izan diren ondasun pribatuen salmenta, baldin eta goian adierazi den bi urtetik gorako epean erabili baditu.
2. Nork bere lanaren edo lanbide zerbitzuen ordainetan jasotako ekoizkinen salmenta.
3. Establezimendua apaintzeko baino ez diren gauzen erakusketa. Bezeroei oparitzeko gaiak erakusgai izatea bai izango da, ostera, Zerga honen zergagai.
4. Txikizkako salmenta denean, egintza bakarra edo eragiketa soltea egitea.

### IV. SALBUESPENAK

#### 6. ARTIKULUA

1. Zerga ordaindu beharretik salbuetsita egondo dira:

- a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta tokiko erakundeak, bai eta horien menpeko administrazio izaera duten erakunde autonomoak ere.
- b) Nazioarteko Itun edo Hitzarmenen arabera salbuespena aplikatu behar zaien subjektu pasiboak.
- c) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturiko mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

Ikerketa alorreko herri erakundeak eta maila guztietako irakaskuntza-establezimenduak, Estatuaren, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, toki erakundeen edo ongintza edota herri onurako izendapena duten fundazioen funtsez baizik mantentzen ez direnak, nahiz eta salbuespen moduan establezimenduan bertan saldu irakaskuntza tailerretako ekoizkinak, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik.

Urritu fisiko, psikiko edo zentzumenezkoen elkarte edo fundazioak, irabazteko xederik ez dutenean, burutzen duten jarduera pedagogikoa, zientifikoa, laguntzako eta enpleguaren alorrekoa denean eta minusbaliatuen irakakuntza, hezkuntza, birgaikuntza eta babeska eskuratzeko direnean, nahiz eta helburu horietarako dituzten lantegietan ekoizten diren ekoizkinak saldu, beti ere salmenta horren emaitza lehengaiak erosteko edo establezimenduaren artapenerako erabiltzen denean eta ez duenean norbanako edo gainontzeko batentzako erabilerarik..

f) Gurutze Gorria eta Lurralde Historikoak emandako arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

g) Beren jarduerari zerga hau garatzen den lehen bi zergaldietan ekiten dioten subjektu pasiboak.

Horretarako, honako kasu hauetan jarduera bat ez da hasitzat joko:



1) Lehen beste titulartasun batekin egin bada; eta hala gertatzen dela ulertuko da, besteak beste, jarduera-arloak fusionatu, bereizi edo gehitzen direnean.

2) Subjektu pasiboa Merkataritza Kodeko 42.artikuluaren arabera sozietate multzo baten parte bada, baina jarduera hori taldeko beste enpresetako inork lehenago garatutako jarduera bat denean izan ezik.

3) Jarduera horretan, partaidetzaren %25 baino gehiago jarduera hori aurretik garatu duten enpresei baldin badagokie.

Aurreko paragrafoetan xedatutako betetzeko, jarduera bera garatzen dela ulertuko da, zergaren tarifetan jarduera hori talde beraren barruan sailkatuta dagoenean.

h) Urteko eragiketa bolumena 2.000.000 (bi milioi) eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplikatu dezakete, baldin eta beraien eragiketa bolumena 2.000.000 eurotik beherakoa bada.

Nolanahi ere, salbuespen hau aplikatzeko ezinbestekoa da subjektu pasiboek ez edukitzea %25etik gorako partaidetza emanda letra honetan eragiketa bolumenari buruz ezarritako betekizuna betetzen ez duten enpresei, salbu eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 59. eta 60. artikuluetan, hurrenez hurren, aipatu arrisku kapitaleko fondo edo sozietateak edo enpresen sustapenerako sozietateak direnean, eta partaidetza hori sozietatearen xedearen betekizunaren ondorio denean.

Letra honetan ezarritako salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1ª. Eragiketa bolumena Sozietateen gaineko Zergari buruzko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauko 2. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

2ª. Sozietateen gaineko Zergaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena hauxe izango da: aitorpena zerga-zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatutako sozietate zibilen eta erakundearen eragiketen bolumena zerga honen ziozko zorra sortu den urtearen azken aurreko urtekoa izango da. Zergaldia urtebete baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3ª. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomiko guztiak hartuko dira kontuan.

Erakundea, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluen arabera, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko erakunde guztienak izango dira.

4ª. Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren kargapekoen eragiketen bolumena Espainiako lurraldean dituzten establezimendu iraunkor guztiei egotzi ahal zaiena izango da.

i) Irabazizkoak ez diren erakundeak, otsailaren 24ko 1/2004ko Foru Arauaren 9. artikuluan aipaturiko ustiapen ekonomikoei dagokienez. Hala eta guztiz ere, erakunde horiek altaren aitorpena aurkeztu beharko dute zerga horren matrikulan, baita baxaren aitorpena ere, jarduerari amaiera emanez gero.



Ezarritako salbuespena aplikatzeko, ezin bestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeen otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16 artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalari jakinaraztea eta lehen aipatutako Foru Arauaren bigarren Tituluan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.

2. Aurreko 1 idatz-zatiko d) eta e) letretan araututako onurak ieskatu egin beharko dira eta, bidezko denean, alderdiak eskatu ondoren emango dira.

3. Aurreko 1 idatz-zatiko a), b), c) eta f) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu Zergaren matrikularen alta-aitorpena.

4. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezarriko du zein kasutan aurkeztu beharko zaion Zerga-Administrazioari 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena aplikatzeko bertan adierazitako betekizunak betetzen direla dioen agiria.

Ondore horietarako, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak ezarriko du zer adierazi behar den agiri horretan eta nola eta zein epetan aurkeztu behar den, eta zein balizkotan aurkeztu behar den telematikoki.

Aurreko 1. idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespenean eragina eduki dezakeen aldakuntzarik gertatuz gero, foru arau honetako 13. artikuluko 2. idatz-zatiko hirugarren paragrafoan ezarritakoa hartuko da kontuan.

## **V. SUBJEKTU PASIBOA**

### **7. ARTIKULUA**

Ondorengo hauek dira Zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 34 eta 35. artikuluetan aipatzen dituen erakundeak, beti ere zergagai den jardueretariko bat udalerrian egiten badute.

## **VI. ZERGA KUOTA**

### **8. ARTIKULUA**

Udalak ezarritako gutxieneko kuotei haztapan koefizientea aplikatuz sortzen den emaitza izango da zerga-kuota. Haztapan-koefiziente hori subjektu pasiboaren eragiketa bolumenaren arabera finkatuko da, martxoaren 26ko 7/2003 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatu eta Ordenantza honetako I. Eranskinean zehaztutakoari jarraituz.

### **9. ARTIKULUA**

Aurreko idatz-zatian araututako koefizientea aplikatuz gehitutako kuoten gainean, udalerrian egiten diren jardueretarako koefiziente bakarra aplikatuko da, Ordenantza honen II. Eranskinean zehaztutako koefizientea.



## 10. ARTIKULUA

Zerga honen kargapeko jarduerak garatzen diren lokal eta establezimenduen kokapen fisikoa neurtze aldera, III. Eranskinean adierazitako kaleen kategoria fiskalaren arabera indizeak aplikatuko zaizkie Ordenantza honetako 8 eta 9. artikuluetan xedatuari jarraituz gehitutako kuotei.

Indizeen eskalan agertzen ez diren kaleak azken kategoriakotzat hartuko dira, eta kalifikazio horri eutsiko diote Udalbatza Osoak bidezko den kategoria izendapena egin eta hurrengo urtarrilaren lehenera arte.

## 11. ARTIKULUA

Kuotak gehitzeko koefizientea eta kokapen indizea ez zaizkie aplikatuko ez probintziako kuotei, ez kuota bereziei ez eta Foru errekaruari ere.

## VII. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

### 12. ARTIKULUA

1. Zergaldia egutegiko urtea bera izango da, salbu eta alta aitorpenak direnean, horrelakoetan jarduera hasten den egunetik egutegiko urtea amaitu artekoa izango baita, artikuluko honetako 3 idatz-zatian xedatutakoaren kalterik gabe.

2. Zergaldiko lehen egunean sortuko da Zerga, eta kuotak ezin izango dira txikitu, salbu eta alta aitorpenen kasuetan, jardueraren hasierako eguna egutegiko urtearen lehen eguna ez denean, horrelakoetan kuotak urtea amaitzeko egutegiko urtetik falta diren hiruhilekoen, jarduera hasi den hiruhilekoa barne, kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatu dira eta.

3. Baja aitorpenetan, kuotak bajaren egunera arte, zergapeko jarduera amaitu den hiruhilekoa barne, igarotako hiruhilekoen kopuruaren arabera, proportzionalki, kalkulatu dira, salbu eta jardueraren amaiera alta aurkeztu den ekitaldian gertatzen denean, horrelakoetan bajak hurrengo urteko lehen egunetik izango baititu ondorioak.

4. Ikuskizunak direnean, kuotak jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitorpenak arau bidez ezarritako eran aurkeztu beharko dira.

## VIII. ZERGA KUDEATZEA

### 13. ARTIKULUA

1. Zergaren kudeaketa matrikula egiten denean hasiko da. Matrikula urtero egingo da eta zentsuen bidez osatuko da; zentsu horietan Ekonomia jarduerak, subjektu pasiboak eta zerga zorrak azalduko dira, eta, behar denean, foru errekarua ere bai. Matrikula jendearen eskura egongo da udaletxean.

2. Subjektu pasiboek alta aitorpenak aurkeztu beharra izango dute, araubidez ezarritako epean; aitorpen horietan aurreko idatz-zatian adierazitakoaren arabera matrikulan sartu beharreko elementu guztiak adierazi beharko dituzte. Jarraian, Udal Administrazioak egoki den likidazioa egingo du; likidazioa subjektu pasiboari jakinaraziko zaio eta, hark, bidezko den sarrera egin beharko du.



Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldateka fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epeetan eta zehazten den bezala.

Hain zuzen ere, Ordenantza honetako 6. artikuluko 1 idatz-zatiko h) letran ezarritako salbuespena ezin aplikatu duten subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi behar diote euren eragiketen bolumena. Orobat, eragiketen bolumenean aldaketa bat gertatuz gero, subjektu pasiboek horren berri eman behar dute, baldin eta aldaketak aurreko salbuespenaren aplikazioan eraginik badu, edo ekainaren 30eko 6/1989 Foru Arauko 10. artikuluko 1. idatz-zatian aurreikusitako haztaperen koefizientearen aplikaziorako kontuan hartu beharreko tartean zerbait aldarazten badu, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak zehaztuko du zein kasutan eman behar den horien berri, eta finkatuko du zer adierazi behar den eta zein epeetan eta nola aurkeztu behar den. Horrez gainera, telematikoki zein kasutan aurkeztu behar den ere ezarriko du.

3. Zerga ikuskalaritzaren jarduketan edo altak zein berriemateak formalizatzearen ondorioz, zentsuetan datuak sartzea, kentzea edo aldatzea administrazio egintzatzat joko dira, eta zentsuaren aldarazpena ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa orok, zentsuetan dauden datuak ukitzen baditu, nahitaez, egin beharko da, aldeztu aurretik, zentsu horietako datuen aldaketa.

4. Zerga hau autolikidazio araubidean eskatu ahal izango da.

## 14. ARTIKULUA

1. Udal administrazioari dagokio zerga kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko ahalmena, borondatezko epealdian zein premiamendu bidez.

2. Udalaren ahalmenak dira, bereziki, honako hauek: matrikula jendaurrean jartzea, errekurtsio eta erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta, zerga honen alorrean zergadunari laguntza eta informazioa emateko jarduketak egitea.

3. Udala eta Foru Aldundia lankidetzan arituko dira Zergaren Matrikula osatzeko eta artatzeko; halaber, batera jardungo dute Ekonomia jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko orduan ere.

4. Salbuespenak emateko edo ukatzeko beharrezkoa izango da Foru Aldundiaren aldeztu aurretiko txosten teknikoa eta hartutako erabakia, gero, Foru Aldundiari jakinaraztea.

5. Artikulu honetako 1 zenbakian xedatuagatik, Foru Aldundiari dagozkio, probintziako kuoten eta kuota berezien gainean atal horretan adierazitako ahalmenak.

## 15. ARTIKULUA

1. Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du Erandioko Udalari dagokion Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Matrikula eta Udalari igorriko dio. Behin matrikula jasota, Udalak jendaurrean azalduko du hamabost egunez, ukitutako zergadunek haiek aztertu eta, kasuan kasu, bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

2. Jendaurreko erakustaldia amaitu eta jasotako erreklamazioak ebatzita, emaitzaren ziurtagiria Foru Aldundiari igorriko zaio, beronek onarpena eman diezaion.

3. Behin onetsita, Foru Aldundiak ordainagiriak egingo ditu eta kobrantza kudeatuko du.

**16. ARTIKULUA**

Ordenantza honetako 1. artikuluan xedatua horrela bada ere, Zergaren kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko ahalmenak Bizkaiko Foru Aldundiaren esku utzi ditu Udalak, Udalbatza Osoak finkatutako neurrian eta hartutako erabakiaren edukiaren arabera, gaia bideratzeko hitzarmena sinatuta.

**IX. XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Zergaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

**X. AZKEN XEDAPENA**

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak eta indarrean iraungo du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

**I. ERANSKINA**

<u>Eragiketen bolumena (eurotan)</u>	<u>Koefizientea</u>
2.000.000,01tik 6.000.000,00ra	1,20
6.000.000,01tik 10.000.000,00ra	1,22
10.000.000,01tik 50.000.000,00ra	1,24
50.000.000,01tik 100.000.000,00ra	1,27
100.000.000,00 baino gehiago	1,30
Eragiketa bolumenik ez	1,25

**II. ERANSKINA**

Gehitutako kuotak aldatzeko koefiziente bakarra:..... 2,19

**III. ERANSKINA**

Udalerriko kaleen sailkapena

KATEGORIA	INDIZEA
Lehenengoa	1,60
Bigarrena	1,45
Hirugarrena	1,13